

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Behin-behineko onartzea hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Añanako Kuadrillak, 2017ko urriaren 18an eginiko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onartzea udalerrri hauetan hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzua emateko zerga ordenantza arautzailearen aldaketa: Añana, Armiñón, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantarón, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zanbrana.

Honako hau argitaratzen da interesdunek espedienteaz aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten. Horretarako, hogeita hamar egun baliodun izango dute, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtuko da.

Rivabellosa, 2017ko urriaren 19a

Lehendakaria

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO GONZÁLEZ